

Zer da mugarri bat?

Mugarri bat zizelkatutako harri bat da, bi estaturen arteko muga irudikatzen duena. Pirinioetako eremuari dagokionez, Espainiar eta Frantziar estatuei buruz ari gara. Mugak 656,3 km-ko luzera du eta 602 mugarri daude. Urruñaren eremuan 15 mugarri ditugu, Manddaleko tontorretik hasiz (9. mugarria) Larhongo tontorreraino (24. mugarria).

Zein da Euskal Herriko mugarri hauen historia?

Espainia eta Frantziaren arteko muga hau bi erresumek izenpetu zuten Pirinioetako itunaren bidez, 1659an. 1784tik 1792 Caro-d'Ornano komisioak landu zuen mugaren ibilbide zehatza, kontrakotasunak saihestu nahian.

1856ko abenduaren 2an izenpetu zen Baionan Pirinioetako ituna, eta ondotik, beste hiru hitzarmenen bidez bukatu ziren bi mendetako negoziazioak eta kartografia lanak, desadostasunak ahal bezainbat saihestuko zituen eskema bat finkatzeko.

Itunak zehazten zuen mugak bi estatuen arteko ur banaketak segitzen zituela, salbuespenak salbuespen: Val d'Aran eta Llivia, besteak beste. Muga hori materializatzea erabaki zuten, mugarren edo harrietan zizelkatutako gurutzeen bidez, eta bakoitzak zenbaki bat behar zuen ekialdetik mendebaldera.

1858ko abenduaren 2ko itunari abenduaren 28an hitzarmen gehigarri bat lotu zitzaion. Horrek finkatzen du Bidasoatik Hiru Erregeen Mahaira (non Behe-Pirinioetako departamenduak, Aragoik eta Nafarroak bat egiten duten) doan mugalerroa.

Mugarri batzuen adibideak, argazkitan:

